



Kalamua guraso elkarte. Elgoibarko Herri Eskola

Ipuinkontalaria.

Jakinik geure hurrei zenbat gustatzen zaizkien ipuinak eta euren gurasoak eskolan ikustea, duela jada hainbat urte erabaki genuen ipuin-kontalaria antolatzea haur hezkuntzako haurrentzat. Baina ipuin kontalari berezi bat, gelako guraso bat da, bolondres aurkezten dena bere seme-alabaren gelara ipuin bat kontatzera joateko.

Ekintza hau, apirilean egiten da. Liburuaren egunarekin batera, irakurmena sustatzeko, eta liburuek duten magia erakusteko asmotan.

Benetan egun berezia izaten da haurrentzat. Pertsona berri bat sartzen delako bere eguneroko espazioan eta gainera pertsona hori bere ikaskide baten aita edo ama delako. Gurasoak ere ikeragarri disfrutatzen dute, urduritasunez beteak askotan, baina batez ere emozioz beteak. Ezin sinetsirik nola hainbat ume berari begira, ixil-ixilik eta formal exerita dauden, kontatuko duena entzuteko irrikitan, belarriak prest, eta ahoa zabal-zabalik.

Ekintza hau antolatzeko, guraso guztiei gutun bat bidaltzen diegu parte hartzera animatzen eta animatzen direnekin egun aproposena adosten dugu ipuina kontatzeko. Joan zen urteko Futuna ere atsikitzen dizuegu.

Ekintza bukatu ondoren, guraso bakoitzari bere ipuin kontalari eguneko dvd bat opartitzen diegu, egun horretako argazkiekin. Gustora asko jasotzen dituzte gurasoek argazki hauek. Hainbat argazki atsikitzen dizkizuegu.

Bide batez, adieraziko dizuegu aurten beste buelta bat eman diogula eta genero aldetik egokituak dauden ipuinak kontatuko dituztela gurasoek. Betiko ipuinak genero aldetik sesgatuak egon ohi dira. Emakumezkoa askotan, gizonezko salbatzailearen zain egon ohi delarik. Aurten irakurzaletasuna, eta berdintasuna uztartzea otu zaigu. Ipuin egokituak entzutea primeran etorriko zaie gure ikasleei, eta hauek ezagutzea ere garrantzi haundikoa izango da geure gurasoentzat. Aukera polita da, hainbat balore zabaltzeko, haur eta gurasoen artean.

Honekin bat doakizue, ipuin kontalaria zer den azaltzeko asmotan prestatu dugun aurkezpen bat.